# PRESENTACION DE DON JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN

Xabier AIZARNA,

*Presidente de las Juntas Generales de Guipúzcoa.*
*Gipuzkoako Batzarre Nagusien Lendakaria.*

Nota. Por una errata involuntaria no se incluyó en el libro *Reformas Penales en el mundo de hoy* (Madrid, Edersa, 1984) la presentación de D. Xabier Aizarna a la ponencia de D. José Miguel de Barandiarán «El humanismo vasco y su incidencia en delitos y penas» (*Op. cit.*, pp. 301 ss.). Parece oportuno publicarla en el presente volumen.

Euskal Kriminoloji Institutotoak, bere ikastaroa asiera ematera dijoala, ta bildu gaitu gaur emen.

Aita Barandiaran'i auzkertzeko esan didate. Danok dakizue ori ez dala bear.

Zuen lanak gure erriaren gaizkillearen egiñak ta bere ingurua aztertzean, izango dira. Ez da gai makala.

Zoritxarrez gaur egun (eta urteak badamakiskigu ontan) gogorkerian amilduak gaude gure erriaren barrun.

Erailketak, Bahituak, bortxetetan batzuk beztearen aurka asmo txar zorrotzbete betean, ikusi eziña, gorrotoa...

Badakigu ondo, bezte inguruan ere mundun zehar, naiko onelako zitalkeri daudela; Naiko ta geiegi. Edozein gogorkeri naiz txikia izan, beti geiegi iruditu bear zaigu. Ta bezteen gaitzak tamalak dira noski. Gureak, ordea, geio ikutzen gaituzte.

Ori kontuan edukiaz, gure jokaera izan bearko da gogorkeri ori gutxitu ta ezeztatzeko bidean ibilli ta ortaz lan egin. Malla guztietan, guk gerok gure ondorengo inguruan eta, zabalago, elkarte ta gizarte osoan.

On Joxe Miel'en bizitza eredu ta ikasbide garbi bezela artudetza kegu.

Azpalditikan ikusia du nolako ezbear eta okerrak egin dizkioten bere la n eta bizi moduan. Ikasle zanean, eta gero irakasle bezela, itz batean esateko beti zuzentasunaren billa, pakea, egia ta argia aurkitu naiean zebillelako. Bai gure errin, baita ere kanporatua bear izan zanean ez zun denbora galdu oker oieri begira, ekin da jarrai egin zun lanean, erriaren alde.

Orrela degu on Joxe Miel: sinismeneko gizona, apaiza jainkoaren griña ta itxaropen bizirik jantzia.

Bere ariketan nekatu eziñezko. ta langille purrukatua; ikerketan lillurakeritikan urruti. Beti umore onena, eta gizatasunez bikaiñean.

Izadiaren maitezale berezia, euzkadiko mendi tontor eta leizazuloarekin oitua. Artzai, nekazari, mendizale ta gure erriko jende guztiaren adizkide, beti ikasteko gosez, eta erakusteko prest.

Kondaira aurreko goraberetan eta ikerketan maixu. Naiz trikuarri, edo antzinako tresna, edo ipui, kanta ta esaera zarrak izan, danetan ikerlari sakon.

Askotan zalantzatsu, galdera bakoitzentzako erantzun jatorraren neurri billa.

Orain egun gutxi direla, Bilbon entzuna diogu eusko ikaskuntzaren azkeneko kongresoa zabaltzean, bere aolku borobilla:

«Teoria bearrezkoa degu. Ta ori baño lenago, askoz geio, aurretik, bein ere baztertu edo aaztu eziña... lana degu. Lana gogotik eta lekubertakoa batez ere. Lan ortatik sortuko da gero ikasgaia edo ondorioa, teoria...».

Ta ori dana gure on Joxe Miel onek bere itxura txiki ta apal onekin; kanpotikan agertzen zaionak ez du azaltzen bere benetako ta barneko adore, kemen ta lanerako gogo iraunkorra.

Urteak betetzea ez zaio ajola. Ez dio jaramonik asko egiten. Obeto esanda, ez du astirik ortan gelditzeko.

Berea du, lan egitea. Bere egitasmo aurrera eramatea. Bezteari languntzea, gure izkuntza jator erabilli, ikerketan jarraitu, zerbaiten billa edo eske urbiltzen zaionarekin jardun. Eta ori bai unibertsitateko jakintsuekin, eta baita ere edozein erritar xaloarekin.

Norbaitek ogeitagarren mende ontako euskalerriaren kultur kondaira bildu edo ikutu bear ba du, on Joxe Miel'en lana ta gauzakin arkituko da.

Au dana agirian dago. Ez da gezurra esatea.

Ez da berari geiegi aipatzea. Arrokeria ez du ezagutzen.

Ondo dakigu on Joxe Miel'i orrek ez diola ez da igurtzen ere, naiko babesten dio bere apalmena, benetako gizon ospetsueri gertatzen zaioen bezela.

Ez naiz geio luzatuko ez zerate etorri bada gauz auek aditzera, baizik berari, aita Barandiaran euskaldun jakintsu ta sinismeneko gizona dan, entzutera.

El comienzo de curso de vuestro Instituto Vasco de Criminología nos ha reunido. Y debo hacer la presentación del Doctor Don José Miguel de Barandiarán, lo que resulta supérfluo.

93 años, científico de grandísimo prestigio, *Doctor Honoris Causa* de nuestra Universidad, Medalla de Oro e Hijo Predilecto de Guipúzcoa. Si alguien no la conoce, me permito recomendarles un repaso a su biografía.

La labor que va a afrontar este Instituto vasco de criminología es el contraste y conocimiento de las inquietudes culturales en el campo criminológico de nuestro país.

Por desgracia hoy (y llevamos años), parece que a veces estamos sumergidos en el remolino de la violencia: asesinatos, torturas, secuestros, extorsiones, odios...

Sabemos que en muchas partes del mundo existe la violencia más despiadada. Y esto, siendo tan lamentable como todo mal, no nos consuela nada. Porque lo que nos duele es la situación de nuestro pueblo.

Considerando esto es por lo que estamos obligados a encaminar nuestro actuar en pos de la disminución y la eliminación de esta desgracia tan duradera. Y esto en todo: desde nuestro entorno inmediato cotidiano y personal con los demás, hasta nuestra relación y conducta en la sociedad.

La vida de Don Joxe Miel es ejemplo para nosotros.

Hace mucho tiempo que experimentó en su vida la injusticia y la violencia; y tanto aquí, como cuando hubo de permanecer en el exilio por su afán de buscar siempre el derecho, la paz, la luz y la verdad, no perdió nada de tiempo en quejarse ni en mirar a sus enemigos.

Siguió trabajando para y por su pueblo, alcanzando el respeto, el renombre y el prestigio que tiene y que a todos nos honra.

Así es Don Joxe Miel: Hombre de profunda fé, sacerdote vestido siempre de su amor a Dios y a sus hermanos, y con la más viva esperanza.

Incansable en su trabajo, lejos de fantasías en sus investigaciones; de buen humor; de auténtica bonhomía.

Enamorado de la naturaleza. Conocedor de nuestros montes en sus picos y en sus cuevas. Amigo de todos; sediento de aprender y dispuesto siempre a enseñar.

Maestro en prehistoria, sea un dolmen o un utensilio de vieja época: sea una leyenda, un canto o un refrán de nuestro viejo pueblo: en todo, profundo y concienzudo investigador.

En las dudas, tal vez frecuentes, buscando para cada incógnita la más medida respuesta.

Recientemente en Bilbao le oímos que la teoría nos es necesaria: antes, sin embargo lo es –imprescindiblemente– el trabajo de campo bien hecho. De este trabajo de campo saldrá luego la teoría, las conclusiones. Labor bien hecha...

Y todo esto es nuestro Don Joxe Miel: con esa apariencia feble y nada destacable. Apariencia que ante quien no le conoce, para nada aflora la energía y el entusiasmo que hierve en su interior.

Cumplir años le tiene sin cuidado. No tiene tiempo para fijarse en pequeñeces. Lo suyo es trabajar, estudiar, investigar, escribir, compulsar. Ayudar a los demás, hablar nuestro euskera castizo, atender a quien se le acerca en demanda de datos, lo mismo sea un Catedrático de Universidad Europea, que el cercano modesto vecino de su pueblo.

Si alguien debe estudiar la cultura vasca en nuestro siglo XX, ha de topar con Don Joxe Miel. Esto es cierto, no resulta exagerado halago, que de cualquier modo resultaría inútil. La innata y elegante humildad de Don Joxe Miel le tiene a cubierto de esas debilidades. Como sucede a los auténticos grandes hombres.

Y termino porque nadie ha venido aquí a oír estas cosas sino para escuchar a este sabio vasco, a este hombre de fé que es Don José Miguel de Barandiarán y Ayerbe.